



Barakaldoko Ansio auzoko obrak. Lindanoa azaldu da lur zati hauetan.

KUTSADURA KIMIKOA

# Bizkaiko herriak Lindanoak kondnaturik

Udazkenean Babcock enpresako eta Eusko Jaurlaritzako hainbat arduradun epaituak izango dira lindanoaren gestioa dela-eta. Lindanoa oso kutsagarria da eta iraganean Nerbioiko bi lantegitan sortu zen. Epaiaketa aitzindaria da eta ekologistak pozik daude. Halere, pestizida horretaz kutsaturiko lurak agertzen dira oraindik. Norentzako da kondena?


URKO APAOLAZA

BABCOCK & WILCOX (BW) enpresako bost goi kargu auziperatuen eserlekuan izango dira laster, enpresa horrek Sestaon zuen nabe batean lindanoa modu desegokian gordetzeagatik 1995 eta 2001 artean. Bizkaiko Auzitegiak ingurumenaren kontrako delituak leporatzen dizkie arduradun horiei eta haiekin batera Tomas Epalza ere epaituko dute,

sasoi hartan Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Saileko Kalitate zuzendaria izan zena. Inoiz ez da lindanoaren gestio publikoagatik auzi bat hain urrutira iritsi eta Lur Maitea –lindano kutsaduraren kontra aritzen den talde ekologista– pozik da, bere ustez “domino efektua” izan bailezake epaiaketa horrek lindanoaren inguruko beste auzietan.

Lindanoa burukomin ugari ematen ari da azken hamarkadatan Nerbioiko herri industrializatuetan: kutsatutako lurak behin eta berriz agertzen dira, lindano arrastoak gordetzeko zelden zuzentasuna zailtzen dago, erakunde publikoen zeregina ere bai, eta herritarrak kutsaduraren inguruko informazioa eta analisi klinikoak eskatzen ari dira.

JON HERNAEZ / ARGAZKI PRESS



Argalario mendian IHOBEk eraikitako segurtasun-zeldak iraungitze data du: 25 urte.

### Arriskutsua eta kantzerigenoa

1940ko hamarkadan plagizida gisa hasi ziren erabiltzen lindanoa AEBetan eta segituan hedatu zen munduko beste herrialdeetara. Nekazaritzan, albaitaritzan edo pertsonen osasunaren industrian erabilia izan da, berdin balio baitu intsektuak edota animalien parasitoak hiltzeko.

Ingurumenarentzat eta osasunarentzat kaltegarria zela jakin zenean, lindanoaren erabilera debekatu egin zen herrialde askotan. Pestizida honek osasunari kalte egin diezaioke arnastuz, ukitutuz edo xurgatuz gero: burukomina, goragalea, sukarra... sortzen du. Halaber, denbora askoan edo neurri handitan gorputzarekin kontaktuan izanez gero koma egoeran utz dezake pertsona. Baina, batez ere, arriskutsua da elikadura katean sartzen delako eta ez delako desagertzen denborarekin: oso iraunkorra eta biometagarria da. Beraz, epe luzera hainbat gaitz sor dezake, eta Osasunaren Munduko Erakundearen arabera, horien artean minbizia dago.

### Enpresek arazoa biderkatu egin zuten, produktu toxikoa lurrarekin nahastean bolumen kutsatua izugarri handitu zelako

#### 80.000 tona lindano kontrolik gabe

1947 eta 1987 artean Barakaldoko Bilbao Chemicals eta Erandioko Asua auzoan zegoen Nexana Industrias Químicas lantegietan produzitu zuten, etengabe, lindanoa. Hasieran, hexakloroziklohexanoa (HCH) deitzen zaion gaia ekotzi zuten intsektizida bezala saltzeko, baina ondoren gai horren isomeroak bereizi eta lindano –isomeroetako bat– huts-hutsa hasi ziren merkaturatzen. Bereizketa horren ondorioz hasierako produktaren %91k ez zuen ezertarako balio eta milaka tona hondakin kutsagarriekin aurkitu ziren enpresetako jabeak. Gaur uste da behintzat 80.000tik gora tona HCH (lindano hondakinak) bota zituztela, inolako kontrolik gabe metropoliko 36 zabortege eta bazterretan.

1980ko hamarkadan, administrazioa jabetu zenean lindanoaren hondakinek sor zituzketen arazoez, hondakinak lantegian pilatzera derrigortu zituzten enpresa horiek. Hala ere, kasu askotan modu irregularrean segi zuten HCHaz gabetzen –Bilbao Chemicalseko administratzaileari isuna jarri zioten hondakina Palentziara eramaten saiatzeagatik–. Azkenean lantegiek atek behar izan zituzten pozoiak gaudituta.

### Multinazionalak eskuak garbitu

Lindanoa produzitu zuten enpresek herentzia gaiztoa utzi diote Bizkaiari. Arazoa biderkatu egin zuten gainera, produktu toxikoa lurrarekin nahastean bolumen kutsatua izugarri handitu baitzen. Horrela, 90eko hamarkadan Ezkerraldean lur azpitik lindanoa han-hemenka agertzen hasi zenean, Eusko Jaurlaritzak neurriak hartu zituen eta enpresa horien jabe ziren multinazionalekin –Merck eta Boehringer– auzitan sartu zen. Baina berriki ekologistek salatu dutenez, inoiz konfirmatu ez den kontratu bat sinatu zen 1994an Jaurlaritzak eta multinazionalen artean: azkeneko hauek soilik 650 milioi pezeta ordaindu omen zituzten immunitate osoaren ordez. Orduan Ingurumen sailburu zen Jose Antonio Maturanak zera esan zion *El País* egunkariari salaketa honen ostean: “Egin behar genuena egin genuen. Negoziazio oso gogorra izan zen eta guk erbia altxa genuen zabortege ilegalen gaia-ekin. Aurpegia eman genuen”.

Eusko Jaurlaritzak, lindano hondakinei soluzioa emateko, Bilbao Chemicals lantegiaren partzelak –gaur egun BEC, Megapark... dauden lekua– erosi eta kutsatutako luraren ardura IHOBE sozietate publikoari eman zion. Erakunde hori 1983an sortu zen Jaurlaritzaren eskutik eta bere zereginen artean dago kutsatutako lur industrialen kudeaketa. IHOBEk, Ezkerraldeko lurretan azaldutako lindano hondakinak biltzeko behin-behineko irtenbide gisa, bi segurtasun-zelda eraiki zituen 1999an: bata Barakaldoko Argalario mendian eta bestea Loiuko aireportuan. Zabortege berezi horiek herritarren protesta sortu zuten; gainera, Europar Bata-

## Bizkaiko lindanoak kezka sortu du Murtzian

Ekologisten artean badago maxima bat: "Hondakinik ez da sortu behar, baina sortuz gero, ez da lekuz aldatu behar". Baina ematen du hondakin toxikoak gauza deserosoegia direla gurean mantentzeko eta horrelako gaiak ahalik eta urrutien eramateko joera dago.

### **Triklorobentzenoa Indiara**

Barakaldoko Bilbao Chemicalseko nabe batean abandonatutako 4.500 tona HCH puruarekin horixe pasatu zen. 1999an, IHOBEK lindanoa "desagerrarazi" eta, bide batez, triklorobentzenoa sortzeko planta bat eraiki zuen nabe hori zegoen lekuan. Barakaldoko herritarren artean ez zen batere ondo hartu neurri hori, tratamendu planta autopista ondoan zegoenez, istripu bat gertatu eta laino toxiko bat sortzeko arriskua ikusten baitzuten. Gainera, zalantza ugari zegoen tratamenduarekin.

Triklorobentzenoa industrian erabiltzen den disolbatzaile bat da, baina toxikoa izaten jarraitzen du eta oso kaltegarria osasunarentzat eta ingurumenarentzat. Hori dela eta 2005ean Europako Parlamentuak bere erabilera eta merkaturatzea mugatu zuen. 2002an desmuntatu zuten arte, Barakaldoko planta horretan sortutako triklorobentzenoa Indiako Goodwill Chemicals enpresari saldu zioten tonako lau sosen truke, tratamendu plantak aldiz, ehunka milioi pezeta kosta zuen. Funtsean, hondakin kutsatua esportatzeko modu bat izan zen.

### **Bilboko Miribillatik Murtziara**

Zer egin du Administrazioak segurtasun-zeldak itxi ondoren azaldu den HCHarekin? Kutsatutako lurak Andaluzia, Palentzia eta Galiziara eramán izan dira bai eta Murtziara ere.



WWW.LURMAITEA.ORG

Bilbon Miribilla auzoan egiten ari diren udal kirol instalazioetan lindano hondakinak azaldu ziren, hain justu meategi zahar batzuen gainean. Alderdi politikoen artean eztabaida sortu da informazioa ezkutatu omen delako eta aurrekontua izugarri igo delako. Kutsatutako lurren zati handi bat Murtziako Cartagenara eramán dute 60 kamioitan, Escombreras izeneko zabortegira. Horren harira, Murtziako Ecologistas en Acción taldeak azalpenak eskatu dizkio Bilboko Udalari, antza, garraioaz arduratu den enpresak ez duelako baimenik lindanoa gestionatzeko. Taldeko arduradunek azaldu dutenez Bilboko Udalaren erantzunaren zain daude eta ez dute baztertzeko fiskaltzara jotzea auzia argitzeko.

Escombreras zabortegia Befesa enpresaren esku dago -Abengoa S.L. taldekoa da, sektore horretan lehena Espainian eta Portugalen-. Enpresa horrek baimena dauka 500.000 metro kubo hondakin kutsatu bertan gordetzeko eta gaitasun hori 1,1 milioi metro kubora handitzea eskatu du. Baina Murtziako Autonomia Erkidegoko Gobernuak debekatu egin dio horrelakorik eta laster zabortegia itxi beharko du lekurik gabe geratzen ari delako.

**Ezkerraldeko pabilioi batzuetan pilaturik zegoen lindanoa ateratzen.**



WWW.LURMAITEA.ORG

suneko txosten batek zalantzan jarri zuen Loiuko zeldaren zuzentasuna, ez zelako egin ingurumen-inpakturako ebaluaziorik. Enrique Múgica Espainiako Arartekoak ere zelda hori "irregularra" zela adierazi du eta segurtasun neurriak betetzen ote dituen jakiteko ikerketa eskatu du. Dena den, bi zabortegien irau-

gitze data 25 urtekoa da eta ikusteko dago horren ondoren zer egingo den bertan gorde zuten 600.000 metro kubo lur kontaminatuekin.

### **Barakaldon lindanoa erruz**

Bizkaian lindanoak gehien kaltetu duen herria Barakaldo da zalantzarik gabe. Argalarío mendiko zeldara era-

mandako lurren %85 Barakaldotik jaso zuten; Max Center, Megapark, BEC eta beste hainbat merkatal azpiegitura egitean azaleratu zen gai kutsagarria. 90eko hamarkadatik Barakaldoko herritar ugari lindanoaren kontrako borrokan jardun dira, eta gaur egun, Ezpitsua talde ekologista da haien herentzia jaso duena.

Makalen etorbidea 24, Neguri (48992)  
Tel.: 944 912 031 • Getxo, BIZKAIA  
www.restaurantejolastoki.com



## 1.800 milioi euro EAEn industriak kutsatutako lurak garbitzeko

Guztira 7.900 hektarea lur daude industriak potentzialki kutsatuta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoan. Orbana lurralde osoan dago bananduta, baina, jakina denez, gune industrializatuenak dira kutsatutako lur portzentaje handiena dutenak. Lur horien %33a industria astunak kutsatu du, %12a automobilgintzarekin zerikusia duten tailerrek, %10a zabortegeiek, %7a gasolindegiek eta %4a industria kimikoak kutsaturik dago.


Eusko Jaurlaritzak 2008an egindako inbentarioaren datuak dira honakoak. "Potentzialki" EAeko lurzoruen %16 omen dago kutsatua, baina Jaurlaritzaren ustez egiaz kutsaturikoa %2,7 eta %6,5 artean legoke. Ingurumen eta Lurralde Antolamenduaren sailak kutsatutako lurak garbitzeko plana dauka abian. Plan horrek aurreikusten du hurrengo hamabost urteetan 7.900 hektareatik 4.012 hektarea lur garbitzea, eta horretarako 1.800 milioi euro gastatu beharko dituela. Momentuz 2012 arteko plana dago martxan, 25,5 milioi euroko aurrekontuarekin. Talde ekologisten ustez katalogoa eguneratu gabe dago eta zehaztasuna falta zaio.

**Nafarroan 279 lur zati**  
Nafarroan oraindik ez dago kutsatutako

lurak zerrendatzen dituen azterketa legalik, 1998ko inbentario bat baizik. 2006an, Nafarroako Gobernuak informazioa eskatu zien 1.200 enpresari kutsatutako lurren berri izateko, Espainiako Estatu-ko 2005eko dekretu batek inbentario ofizial bat egitera derrigortzen baititu autonomia erkidegoak.

Gurelur Inguru Naturalaren Babeserako Fondoak egindako txosten baten arabera Inabonos, Katzapegi, Funvera, Destilados del Norte, Luzuriaga eta beste zenbait enpresatako lurretan kutsatutako lurak egon daitezke. Guztira 279 lur zati egon daitezke potentzialki kutsatuta Nafarroan.

IHOBEk EAEn lindano hondakinetatik garbitutako hektarea kopurua (2000-2008)



Iturria: Ingurumen Urtekaria 08. Eusko Jaurlaritza

“Boom bat saldu ziguten esanez zelda hori zela arazoaren soluzioa –dio Javi Vazquez Ezpitsua taldeko kideak–, baina ez da horrela izan, hor lindanoaren zati bat bakarrik sartu zuten. Megaparkeko eremu guztia diru publikoz garbitu zen operazio urbanistiko batekin espekulatzeko”. Ekologistek salatu dute Barakaldoko Ansio inguruan –Bilbao Chemicals lantegia zegoen parajetik gertu– lindano gehiago agertu dela etxebizitzak egiten hasi direnean. “Kasualitatez lindanoa agertu da jabetza publikoko eremuetan eta ez partzela pribatueta”, Vazquezek zalantzagarriri jo du hori eta arazoa Lurzoruaren Legean dagoela dio, lege horrek ez baitu promotorea derrigortzen kalitate azterketa bat egitera obra bakoitzean, baizik eta soilik susmoa dagoenean: “Eta noski, inor ez da ezertaz enteratzen...” dio.

Bestalde, kutsatutako lurrekin segitzen den protokoloa ere kritikatu du Ezpitsua taldeko kideak, obra hori kontrolatzeko ingurumen kudeatzailea promotoreak berak kontratatzen duelako, “hori ez dago

ondo” dio. IDOM ingeniari-tza enpresa da ingurumen kudeatzaile nagusietako bat arlo horretan. Ezpitsua taldeak salatu egin zuen enpresa hori, Ansioko partzela batean protokoloa ez betetzeagatik: emisio-kaptatzaileak ez zuten erabiltzen; haizea zegoenean ez zuten sarerik jartzen kutsadura hedatzea eragozteko; lurra garbituta zegoela frogatzen zuen agiria jaso aurretik hasi ziren zimenduak jartzen. Espedientea ireki zioten enpresari. “Orain badakigu Lur Kutsatuen Katalogoan agertzen diren gain, gutxienik hiru partzela gehiago daudela lindano hondakinekin eta beste bitan kutsadura analisisiek positiboa eman dutela uste dugu. Baina ezkutatu egiten dute, zeren eta horrek garapen urbanistikoa ozto-

**Hamabi produktu kutsagarrienen zerrenda beltzari (Nazio Batuak, Stockholmoko Konbentzioa) gehitu zaio lindanoa**

patzen du; ez bakarrik Barakaldon, Bizkaia osoan ere pasatzen da hori, Miribilla esaterako”. Bilboko Miribilla auzoan kiroldegi handi baten proiektua geldirik egon da lindanoa azaldu delako lur azpian (ikus aurreko orrialdeko koadroa).

### Edateko ura ere kontaminaturik

Lindanoaren arazoa ez da lur kutsatuetara mugatzen. 2008ko udaran Eusko Jaurlaritzako Osasun sailak Trapagarango Oiolako urtegia itxi zuen HCH arrastoak agertu zirelako bertako uretan. Hilabete batzuk beranduago Administrazioak onartu zuen Barakaldoko biztanleen zati bat kutsatutako ura edaten aritu zela denbora batez, baina beti “segurtasun neurrien azpitik”. Ekologisten ustez baina, kutsadura leku gehiagotara iritsi da, ur hodiak interkonektaturik daudelako. Bestalde, Ezpitsua taldeak Barakaldo zeharkatzen duen Castaños ibaian lindano hondakinak aurkitu ditu 62 puntutan. “Leku batean, batez ere, urak lindano kirats handia zuen, nabaritzen zen hor zegoela” dio

Vazquez-ek. Izan ere lindanoa oso ongi bereizi daiteke duen kolore arre eta usain sarkorragatik.

HCH edo lindano hondakin kutsadura zantzu larriak ikusita, Barakaldoko Instrukzio Epaitegiak ikerketa epidemiologikoa egitea agindu zuen duela gutxi herritarren artean. Aspaldiko eskaera bat zen eta joan den urtarrilean atera zizkioten odol frogak 120 boluntariori. Juan Jose Aurrekoetxea aditua arduratu da analisiak egiteaz eta oraindik ez dituzte argitara eman emaitza orokorrak.

### **BW eta Eusko Jaurlaritza akusatuen eserlekuan**

Bizkaiko Audientziak berretsi egin du BW enpresako bost goi kargu eta Tomas Epalza Ingurumen Kalitateko zuzendaria auziperatzea lindano pestizidaren gestioagatik. Auziaren jatorria jakiteko ia hamabost urte atzera egin behar da.


1995ean BWk Sestaon zituen lurrak saldu zizkien enpresa pribatuei bertan industria poligono bat eta hainbat merkatal gune egiteko (Pryca, Lidl...). Lur horiek HCHz kutsaturik zeuden, 80ko hamarkadatik lindanoa sortzen zuten enpresek beraien lantegietan biltzen baitzituzten hondakinak derrigorrez –Bilbao Chemicalsek ere horixe egin zuen eta ondoren abandonatuta utzi zituen bere nabe batean milaka tona lindano puru–. BWk irtenbide bat eskatu zion Eusko Jaurlaritzari HCHz kutsatutako lur horientzako: soluzioa izan zen hondakinak aldameneko nabe zahar batera eramatea behin-behinean, Argalarioko segurtasun-zelda egin artean. Horrela, 1995 eta 2001 artean lindano hondakinak 3.500

poltsa handitan gordeta egon ziren BWko pabilioi horretan.

Lur Maitea talde ekologistak akusazio partikular bezala azaldu du bere burua auzi honetan, bere ustez, “zabortegei klandestino eta ilegala” baitzen hura. Auziak urte asko egin ditu ez atzera ez aurrera, baina 2008an Barakaldoko Instrukzio Epaitegiak auto bat kaleratu zuen pertsona horiek prozesatuz: “Depositoa ia abandonaturik zegoen eta horrek neglijentzia garbi bat uzten du agerian” dio epaileak. Autoak kontuan hartzen ditu hainbat txosten, azkenekoa Nicolas Olea Granadako Medikuntza Unibertsitateko katedradunarena: “Pertsonen osasunarentzako arriskua egon zen” ondorioztatzen du. Izan ere, zakuak estalperik gabe zeuden, hautsita eta hezetasanak hartuta. Epaileak ingurumenaren kontrako delituak ikusi ditu BWko zuzendarien kasuan, eta Tomas Epalzari dagokionez, prebrikazioa ere egotzi dio. Epalzak hondakinak biltegian gordetzeko epea luzatzea baimendu zuen, besteak beste. Epaiketa urri aldera izan-

go da seguruenera. Gaur egun, Ura- ren Euskal Agentzia zuzentzen du Epalzak eta auziperatzea jakitean honakoa adierazi zion *El Correo* egunkariari: “Gure jarduera eredu- garrria izan zen eta Europar Batasun- naren abala izan zuen” –segurtasun zeldak eraikitzeke 38 milioi euro eman zituen EBk–. Eusko Alkartasuna ere bere alderdikidearen defentsan atera da eta adierazi du epaiketan demostratutako dela Epalzaren errugabetasuna.

BWko auziak eta Ezkerraldean lindano gehiago azaldu izanak pestizida honen arazoa azaleratu du beste behin ere. Sakonean, oraingoz desagerrarazi ezin diren hondakin guztiekin sortzen den arazo berbera da: zer egin beraiekin? HCHaren kasuan larritasun bat gehiago dago: oso hondakin kutsagarria dela. Hain zuzen, duela gutxi gehitu zaio Nazio Batuen Estokholmoko Konbentzioan sortutako 12 produktu kutsagarrienen zerrenda beltzari. Horrek erabaki irmoak hartzea eskatzen du, ingurumenaren eta pertsonen osasuna lehenetsiz beste ezeren gainetik. ■



**Lur Maitea taldeak bere webgunean jarri ditu Babcock kasuko auziperatze autoa eta beste zenbait dokumentu.**

Pamiela argitaletxeak, Kulturaren aldeko Euskal Fundazioaren babesarekin

## **JUAN ZELAIA**

### **IX. Saiakera saria**

antolatzen du, euskaraz idatzitako edozein gai buruzko saiakerak edota iritzi lanak zabaldu eta sustatzeko asmoz.

**Saria: 9.000 €**

Lanak bidaltzeko: Pamiela etxea (Juan Zelaia Saria), Agustindarren industrialdea-Soltxate. G kalea-31013 IRUÑEA.

**Irailaren 30a arte.**

Tel.: 948 326535 / soltxate@pamiela.com / Arauak: www.pamiela.com

